

Adinekoek zahartze aktiboa eta osasungarria eskatzen dute

Bizkaiko gizarteak **zahartze prozesu azkartua** dauka. Bizi-kalitatearen hobekuntzak, arreta eta tratamenduen arloko aurrerapen medikoek eta jaiotza-tasa txikiak 65 urtetik gorako adinekoen kopurua inoiz ezagutu den handiena izatea eragin dute. Gaur egun **214.000 adineko** dira, gehienak gorputz eta buru egoera oso onean daudela. Horri esker, ia edozein jarduera mota garatu ahal izango dute. Horietaz gain, **aurre-erretiratuak ere asko** dira, azken hamarkadetan gure ekonomian egon diren aldaketan ondorioz.

Gaur egun, XXI. mendea hasi eta gero, ezin dugu **zahartze** kontzeptua erabili, orain arte ulertu den moduan. Ezin dugu pertsona bakantasunera eta ostrazismora hurbiltzen duen deserrotze eta gainbehera prozesutzat edo, asko jota, aisia hutsa eta pasiboa errazten dituen erretiro errukitsua merezi duen sektore ez-emankor huts edo karga sozialtzat jotzen jarraitu. **Gaur egun, adinekoek gure gizarteari interpelatzen diote, gero eta neurri handiagoan kontuan hartzea eskatzen dute eta partaidetza modu berriak proposatzen dituzte.** Lehenik eta behin, garapen pertsonala ez da zahartzaroan amaitzen; izan ere, dimentsio berria hartzen da, modu egokian bideratuz gero, batzuetan oparagoa dena. Bigarrenez, pertsonak bere buruarekin eta gizartearekin hartzen duen konpromisoa ez da adin horretan amaitzen; izan ere, ikuspuntu berria eta adierazteko modu ezberdina ditu, baina beste edozein bezain benetakoak eta eraginkorrak izan daitezke horiek. Horrela, gero eta pertsona gehiagori sartu zaie buruan **zahartzeko modua berriro asmatu** behar dela.

Lehenengo ereduaren ondorioz kezkagarrienetako bat **inoren laguntza behar duten pertsonen** kopurua da. Pertsona horiek laguntza-sistema huts bati kateatuta daude eta gero eta zerbitzu gehiago eskatzen dituzte, hala egoitzak eta eguneko zentroak, nola etxez etxeko laguntzak. Biztanleen ehuneko zehatz baterako eginkizun garrantzitsua betetzen duten mota horretako baliabideen beharra ukatu gabe, baliabide horiek ez dira zahartzearen arazorako konponbidetzat jo behar. Izan ere, zati handian, alderantzizko jarrera egongo da, hau da, adinekoen **autonomia pertsonala bultzatuko da**, barruraino sartu behar den eta **zahartze aktiboa** deitzen dugun kontzeptu berri horretan haien gaitasunak garatuta.

Zahartzaro aktiboa eta osasungarria sustatzeko gure esku dauden proposamenen artean, **Nagusiak-ek** adinekoek **gizarte-erakundeen bidez** modu eraginkorrean **parte hartzearen alde egiten du**. Partaidetza horrek iguripenak sortzen ditu, helburu berriak osatzen ditu, konpromisoak hartzen ditu, adinekoak garapeneko eta aldaketa sozialeko protagonista bihurtzen ditu eta hainbat urtetan eskuratutako esperientzia bizitzara bihurtzea errazten du.

Nagusiak, ekintzatik eraikitzen

Deskribatutako ildoarekin bat etorrita, Nagusiak-ek bere buruari proposatu dio zahartze aktiboaren helburuak biltzen dituen **elkartze-partaidetzako modu berria sortu eta eskaintzea**. Azken urteetan, Bizkaia osoko **134 elkarteetan banatutako 50.000 kidek baino gehiagok** gogoeta-lana eta proposamenak garatu dituzte, jada beren lehenengo emaitzak izan dituztenak.

Lan horren zati bat erakundeak martxoaren 1ean, ostegunean, **Urteko Batzarrean** aurkeztuko duen 2006ko memorian islatuko da. Memoria horretan Adinekoen Estatu Kontseiluan Dependentsia Legeari eta Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluan Gizarte Zerbitzuei buruzko etorkizuneko Legea zein programa sociosanitarioa idazteko lanari egindako ekarpenak nabarmenduko dira; hori guztia Erretiratu eta Pentsiodunen Euskadi eta Nafarroako Federazioko kidea den aldetik egin du. Halaber, aipatu behar dugu Bilboko Udal Kontseiluan eta Bizkaiko Adinekoen Foru Kontseiluko lau taldeetan parte hartu duela; gainera, Nagusiak-ek talde horietako bi koordinatu ditu. Eta ez dira ahaztu behar egin ohi dituen elkartze-jarduerak.

Berebiziko garrantzia daukan ekintza bat honako hau da: **“Berrikuntza Bizia jardunaldiak. Adinekoen Elkartearen zahartze aktibo eta suspertzeko programa”**. Partaidetza-metodologia garbiari helduta, Nagusiak-en tokiko elkarte guztietako kideek **gogoeta egin dute** gure herrialdeko **adinekoen asoziazionismoaren gaur egungo egoerari** eta partaide berriak – batez ere 55 eta 70 urte bitartekoak- erakartzeko oztopoei buruz. Nahiz eta prozesua oraindik amaitu ez den eta behin betiko ondorioak atera ez diren, esan daiteke arrazoi-tako batzuek adierazten omen dutela **partaidetza-ereduak neurri handian zaharkituta daudela eta** erretiratu berri askoren **bizi-iguripenei erantzuten ez dietela**. Pertsona horiek leku aktiboagoak eskatzen dituzte, beren gorputz eta buru egoerara eta gaur egungo jarreretara egokitutako proposamenak dauzkatenak. Denak adierazten du helburua gaur egungo garaiekin eta adinekoen bizi-beharrizaneekin bat datozen **partaidetza-ekimen eta elkarte-esperientzia berriak sustatzea** izan behar dela. 2006aren hasieran Bizkaiko Foru Aldundiaren eta BBKren laguntzaz abiarazi ziren jardunaldiak 2007aren amaieran bukatuko omen dira.

Zer da Nagusiak?

Nagusiak irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundea da, Bizkaiko pentsiodunak eta erretiratuak biltzen dituena. 1971n sortu zen eta honako helburu hauek ditu:

- adinekoen gizarte-sustapenaren alde lan egitea;
- erretiratuen eta pentsiodunen zentro berriak sortzea sustatzea;
- erretiratuen eta pentsiodunen eskubideak defendatzea;
- elkartekideei indarreko legediak eskaintzen dituen baliabideei buruzko aholkularitza ematea;
- Nagusiak-en sartutako elkartearen funtzionamendua koordinatu eta suspertzea.

Gaur egun, Bizkaiko Lurralde Historikoko eskualdeetan banatutako tokiko 134 korporaziok, guztira 52.000 elkartekide biltzen dituztenek, osatzen dute Nagusiak. Erakunde bakoitzak autonomia dauka kudeaketaren arloan, bere zuzendaritza-batzordea dauka eta ia erakunde guztiak dagozkien udalek lagatako lokaletan kokatuta daude. Horiek guztiek Nagusiak-en egitura funtzionalean parte hartzen dute ordezkarien kontseiluko eta urteko batzarreko ordezkarien bidez.